

## PRENTSA OHARRA

### Irizar ZeEUS proiektuan parte hartzen ari da Europako hiri nagusietan autobus elektrikoak ezartzeko

Irizarrek joan den urtarrilaren 23an ZeEUS proiektuaren aurkezpenean parte hartu zuen. Sigla horiek "zero emisiodun hiri autobusen sistema" esan nahi dute ingelesez. Bruselan aurkeztu zen proiektua eta mugarri garrantzitsua da hiri garraio ekologikoan.

Proiektu berritzailea da eta bi helburu nagusi ditu: gaitasun handiko ibilgailu elektrikoak garatzea eta haiek kargatzeko azpiegitura egokiak sortzea irtenbide erabat elektrikoa ezarri dadin Europako hirietako autobus sare gehienetan.

Errepideko garraioan elektrizitatea erregai alternatibo gisa erabiltzeak atmosferako kutsadura, berotegi efektua duten gasen emisioa eta kutsadura akustikoa murrizten laguntzen du.

Proiektuko burua Unión Internacional de Transporte Público (UITP) erakundea da. Hark koordinatzen ditu proiektuan inplikaturik dauden 40 bazkideak, haien artean Irizar. Bazkide horiek mugikortasunean inplikaturik dauden kategoriaz guztiak ordezkatzen dituzte.

Erakundeko presidente **Sir Peter Hendy**-ren hitzetan, Britainiar Inperioaren Ordenako komendadorea bera, *"Elektrizitatea erregai gisa erabiltzea garraioan etorkizun handiena duen aukeratzat jo izan da eta autobusetan duen aplikazioa zabaltzen ari da. Europako Batzordeak elektromugikortasunaren arloan finantzatu duen anbizio handieneko proiektua da"*.

Proiektuak 42 hilabete iraungo du eta autobus elektrikoen ekonomia, operazio, ingurumen eta gizarte bideragarritasuna erakusten saiatuko da batez ere. Autobus elektrikoak hirietako mugikortasunerako aukera erreala direla erakutsi nahi du Europako 8 hiritan ezarriko diren irtenbide teknologiko berritzaileekin: **Bartzelona, Londres, Glasgow, Stockholm, Muenster, Erroma, Pilsen eta Bonn**, klima eta orografia ezberdineko hiriak.

IRIZAR autobusak eta autokarrak fabrikatzen dituen Espainiako enpresa bakarra da eta proiektuan bere parte hartzea hezuramituko duen sektoreko Europako bi ordezkarietako bat, hiriko bi autobus elektriko entregatuko baitzikio Bartzelonako TMB enpresari.

Ezaugarri nagusiak eta teknologiarik dagozkionak honako hauek dira:



- 180 kW-ko potentzia nominala 230 kW-ra irits daitezkeen gehieneko koskekin eta 1500 Nm-ko pare nominala eta 3100 Nm-ko koska.
- Ibilgailuan pilatutako energia 376 kWh-koa da, eta beraz, 200 eta 250 km arteko autonomia lortzea aurreikusten da, gidatze zikloaren eta baldintza klimatologikoen arabera
- Ibilgailuak teknologia aitzindariak izango ditu, pre-klimatizazioa eta Eco Assist, esate baterako.
- Pre-klimatizazioari esker ibilgailua temperatura egokienean irteten da garajetik, sareko energia aprobetxatu eta energia-kontsumoa gutxituz.
- Eco-Assist gidariari denbora errealean laguntzen dion sistema bat da, ibilgailuaren energia-kontsumoa gutxitzeko eta horrela autonomia handitzeko helburua duena. Kontsumoaren, ibilbidearen eta gidariaren gaineko informazioa zentralizatzen ditu.

Ekimen hau oso garrantzitsua da Irizarrentzat, Europan garatzen ari diren programa garrantzitsuenetako bat izateaz gain taldearen teknologia ezagutarazteko erakusleho aproposa izango baita, eta orobat, merkaturatzea testatzeko eta bere produktua ebaluatzeko bitartekoa.



UITP erakundea, Unión Internacional de Transporte Público (UITP) nazioarteko sare bat da. Garraio publikoko agintariak, operadoreak, politikak formulatzeko arduradunak, zientzia erakundeak eta garraio publikoa hornitu eta zerbitzua ematen dioten enpresak biltzen ditu. Erakundeak 92 herrialdeetako 3.500 kideen artean nazioarteko lankidetzak, enpresa garapena eta ezagutza teknikoak partekatzeko plataforma da. UITPk Mundu mailan garraio publikoa



eta mugikortasun jasagarria defendatzen ditu eta sektorean berrikuntzak sustatzen ditu. Gure web gunea hau da: [www.uitp.org](http://www.uitp.org)

**ZeEUS proiektuaren** (zero emisiodun hiri autobus sistema) helburua hirietako autobus sare gehienetan irtenbide erabat elektrikoa ezartzea da. Ekimena Europako Batzordeko Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritza nagusiak ere finantzatzen du eta aurrekontua 22,5 milioi eurokoa da (13,5 milioi EBtik datoz).

Informazio gehiagorako  
Ana Eceiza  
Mail: [aeceiza@irizar.com](mailto:aeceiza@irizar.com)  
Tel.: + 34 667181833